

FITXA: 243 - GIPUZKOA - Gipuzkoa Taldean - Gazteen ongizate emozionala sustatzeko proiektuen programaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2026ko deialdia.

Nori zuzendua: Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte udalek, toki-entitate txikiek, mankomunitateek, unibertsitateek, lanbide-heziketako zentroek, ikastetxeek, elkarteek, fundazioek, enpresa publiko eta pribatuek, garapen-agentziek edo beste administrazio batzuek.

Deialdia: GAO - Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala **Deialdiaren data:** 2026/06/08

Sarbide-esteka:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/hasiera>

Erreferentziarako araudia: 2026ko ekainaren 2ko Erabakia -
<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/06/08/c2603782.pdf>

Eragin eremuak: Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirolak

Zenbatekoa: 300.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/06/09

Aurkezteko azken eguna: 2026/07/06
(12:00)

Aurrerakina: Ez da zehaztu

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.

Gutxieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.

Tramitazioa: Norgehiagoka.

Laburpena

Zehazki, laguntzen helburua da prebentzio unibertsaleko proiektuak bultzatzea Gipuzkoako gazteei zuzenduta, bereziki 12 eta 17 urte bitartekoei, babes-faktoreak indartzeko eta haien ongizate emozionalari eragin diezaioketen arrisku-aldagaiak murrizteko.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Proiektuek helburu hauek izango dituzte:

— Dagokion lurralde-eremuan lehendik dauden ekimenen koordinazioa eta konbergentzia sustatzea, inpaktu esanguratsuagoa lortzeko: ongizate emozionalaren eremuan dauden

askotariko baliabideak dinamizatzea eta bateratzea, lankidetzan publiko-pribatu-sozialerako modu eta egitura berriak proposatzea, eta esku-hartzeen eragina optimizatzea.

— Ingurune errealean, lankidetzan oinarritutako prozesu, metodo edo sare komunitario berritzaileak pilotatzea, lurraldean erreferentzia izan daitezen eta, beraz, efektu biderkatzailea izan dezaten.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira entitate eskatzaileak aurkezten duen jardueraren aurrekontu xehatu eta zehatzean jasota egonik, diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta oinarri arautzaileetan ezarritako epean egiten direnak, eta, zehazki:

- Barne langileen kostuak eta proiektua garatzeko azpikontratazioen gastuak.
- Bestelako ustiapen gastu osagarri batzuk, material, hornikuntza, nahiz proiektutik zuzenean eratorritako antzeko produktuen kostuak.
- Zeharkako gastuak, diruz lagundutako jarduerak entitate onuradunak garatutako gainerako jardueretikiko duen proportzioaren arabera.

Gastuetarako aldi hautagarria

Eskaerako jarduketak 2026ko urtarrilaren 1etik 2027ko irailaren 15era bitartean gauzatu beharko dira. Justifikazio-kontu partziala 2026ko azaroaren 13a baino lehen aurkeztu beharko da, eta jarduketan gauzatze osoa egiaztatzeko azken kontua, berriz, 2027ko urriaren 15a baino lehen.